

Iaz 163.621 lagun hartu zituen Bizkaiko Foru Liburutegiak

BILBO. Kultura zaleen bilgune bihurtu da denbora gutxian Bizkaiko Foru Liburutegia. Bere ederrak jende asko erakartzen du egunero, baina barruan eskaintzen dena ere amu galanta da kultur mundura hurbildu nahi duen edonorentzat. Hartan, jende andana hurbildu izan da azken boladan Bilboko erdialdean dagoen eraikin ikusgarriara. Iaz 163.621 izan ziren, eta pasa den hilean 19.087 lagun sartu ziren bertan, iazko urtarrilean baino mila bat pertsona gehiago. 'Horrek esan nahi du egiten ari garenak erantzun ona jasotzen duela, jendeak parte hartzen duela antolatzen ditugun ekintzetan. Aurten jarraipena eman diegu ekintza horiei, eta berriak sartu ditugu baita', esaten zuen atzo Aldundiko Kultura zuzendari Jon Iñaki Zarragak. Aurtengo egitaraua aurkezteko agerpen zabala egin zuen Zarragak, eta bertan berba potoloak esan zituen: 'Azpiegitura hau benetako kulturagunea bihurtu da hiru urtetan, gogoeta eta sormena bultzatzeko lekua, eta egitarau berriarekin bide horretatik jarraitu nahi izan dugu, Liburutegiko ateak zabaltzeko eta bizkaitarrei zuzenduz'. Liburutegira hurbiltzen den jendearen ekarpenak ere gogoan izan dituzte Aldundian. Zarragaren iritziz, 'hortik datoz gero berrikuntza batzuk; hori bai, funtzionatzen duten gauzak mantendu egin ditugu'. Honela, aurtengo egitarauak aspaldian abian jarritako programa batzuk mantenduko ditu, tartean Bizkaldatz literatura saria edo Irakurketa Txokoa, eta berrikuntza garrantzitsuak gaineratu dituzte, esaterako, argitalpen tailerra. 'Magazine bat egiteko aukera emango du tailer honek; aurtun paperean, eta datorren urtean, akaso, formatu digitalean egingo da', zioen Zarragak atzo. Horrez gain, ikasketa teknikak hobetzeko eta adierazpen irakurketako tailerrak egingo dira.

Erakusketak ere iragarri dituzte. Apirilean Liburu marraztuak-Bizkaiko ilustrazioaren odisea (XVI-XXI) agertuko dute, eta abendurako utzi dute mitologiarena: Euskal mitologia guztiontzat. Beste nobedade bat Euskara Irakurle Taldeena litzateke. 'Egitasmo honen helburua literaturaz gozatzea da, eta, bide batez, irakurle sareak osatzea', azpimarratzen zuen Zarragak. Horrez gain Letrak eta futbola egitasmoaren bigarren aldia iragarri dute, iaz programatutako ekitaldien artean arrakastatsuenetakoa izan baitzen. Bertan futbolaren aukera narratiboak aztertuko dira.

2007an zabaltzeko Liburutegia, berrikuntzen ostean, eta ordutik 4.000 pertsona inguruk parte hartu du ekintza desberdinetan.